

# Asisko gutuna

2024ko urria

4. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

192. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asisko Frantzisko naturarekiko maitasunarekin lotu dugu. Izan ere, ekologiaren zaindaria da. Hala ere, maitasun hori ez da naturarekiko sinpatia hutsetik sortzen.

## Gogoetarako gaia

### *Anaitasuna kreazioarekin*

Denok ezagutzen ditugu San Frantziskoren parteak naturarekin modu harmoniatsuan erlazionatuz. Maitagarria da txoriei egin zien prediku hura, interes handiz egin zioten kasu txoriek Frantziskori. Gogoangarria da Frantziskok otso hiltzailearen eta Gubbioko herritarren artean egin zuen bake-prozesua. Bide erdian zegoen harra kontuz baztertzeraz gonbidatzen zuen. Baratzte zati bat eskatzen zion anaia ortuzainari basabelarrentzat.

Hala ere, naturarekiko harreman modu hori Jainkoarekin, bere buruarekin, anaiekin eta bizitzea egokitu zitzaion errealitate guztiarekin adiskidetzeko prozesu luze baten emaitza izan zen. Frantzisko anai unibertsal gisa aipatzen dugunean, guztion eta existitzen den guztiaren senide dela hitz egiten dugunean, ez da zentzu erromantikoan, gatazka eta zailtasun mingarririk gabe. Frantziskok, Jesus pobre eta gurutziltzatuaren jarraipenean, ulertzen errazak ez zaiz-

kigun errealitateekin senidetuta ikusten du bere burua: "Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dutenengatik barkatzen eta gaixotasuna eta larrialdia eramaten: zorionekoak bakean sufritzen dituztenak, zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta".

Frantziskotarren espiritualtasunaren arabera, anaitasunaz hitz egiten dugunean, bertan sartzen dira izaki bizidun eta bizigabeak. Ekologiak laguntzen digu horretan. Baina naturaren errespetutik eta zaintzatik haratago, bizitza planteatzeko modu bat ere bada. Bizitza ez da gehiago eduki eta ekoizteko, baizik eta gizateria anaikorrago bat sustatzeko, kosmosa barne hartzen duen bake unibertsal bat sustatuz. Hor ez da ezer.

Eta, hain zuzen ere, Frantziskok heriotzari arreba deitzen dio. Beraz, heriotzarekin ere lotzen gaituena ez da gure nahia, errealitate osoa biltzen duen Jainkoa baizik.

## Biblia pasartea: Has 2,4-9.15

Jainko Jaunak zeru-lurrak egin zituenean, ez zegoen oraindik landararik lurrian, ezta belarrik ere erneta, Jainko Jaunak ez baitzion oraindik lurrari euririk eman, eta ez baitzen lurra lantzeko giza-kirik. Hala ere, lurrazala hezeten zuen lurrina zerion lurrari. Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudur-zuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen.

Ondoren, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Eden, ekialdean, eta hantxe ezarri moldaturiko gizona. Orotariko zuhaitzak sorrarazi zituen lurretik, ikusgarriak eta fruitu gozodunak. Baratzte erdian bi zuhaitz ernearazi zituen: batak bizia ematen zuen eta besteak dena ezagutzeko ahalmena. Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ezarri zuen, landu eta zain zezan.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona, zureak gorespenak, aintza, ohorea eta bedeinkapen dena. Zuri, Goi-goiko horri, dagozkizu bakarrik, eta ez da gizakirik zu aipatzeko duin denik.

Goretsia zu, ene Jauna, zeure sorkari guztiekin, batez ere anaia eguzki jaunarekin: bera da egun-argia eta berarekin diguzu egiten argi. Eder eta distiratsu da dirdira bizitan: zure, Goi-goiko horren, irudi da. Goretsia zu, ene Jauna, arreba ilargi eta izarrengatik: argi, bitxi eta eder dituzu zeruan jarri.

Goretsia zu, ene Jauna, anaia haizearengatik, eta aire, laino, oskarbi eta edozein eguraldigatik: beronen bidez ematen diezu mantenua zeure sorkariei. Goretsia zu, ene Jauna, arreba urarengatik: txit ongarri da, apal, bitxi eta garbi.

Goretsia zu, ene Jauna, anaia suarengatik: beronen bidez argitzen duzu gaua eta ederra da, alaia, sendoa eta indartsua. Goretsia zu, ene Jauna, gure arreba ama-lurreragatik: berak gaitu mantentzen eta gobernatzen, eta hainbat fruitu, lore koloretsu eta belar sortarazten.

(Anaia eguzkiaren kantika 1-9)

## Otoitza

Jainko ahalguztiduna,  
unibertso osoan presente zaudena  
eta zure kreatura txikienetan ere bai.  
Zuk, zure samurtasunez  
existitzen den guztia inguratzen dun horrek,  
isuri guregan zure maitasunaren indarra,  
bizia eta edertasuna zain ditzagun.  
Busti gaitzazu bakeaz, anai-arreben moduan bizi  
gaitezen [...]

Pobreen Jainko,  
lagun iezaguzu erreskatatzen  
mundu honetako abandonatuek eta ahaztuek  
hainbeste balio baitute zure begietan.  
Sendatu gure biziak,  
munduaren babesleak izan gaitezen  
edertasuna erein dezagun [...]

Ukitu etekinaren bila  
baino ez dabilzanen bihotzak,  
pobreen eta lurraren kontura ibili ere.

Erakuts iezaguzu gauza bakoitzaren balio deskubritzen,  
liluraturik kontenplaten,  
onartzen sakonean baturik gaudela  
kreatura guztiekin  
argi infiniturako gure bidean.

Eskerrak egunero gurekin zaudelako.  
Hats emaguzu, mesedez,  
justiziaren, maitasunaren eta bakearen aldeko  
gure borrokan.

(Frantzisko Aita Saindua)

## Gutuneko azken hitzak

Sorkuntza-prozesua entrega-prozesua da, eta ez kontrol-prozesua. (Julia Margaret Cameron, argazkilaria XIX. mendean)

### 2024ko urriko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Lk 9, 51-56	8. Lk 10, 38-42	15. Mt 11,25-30	22. Lk 12, 35-38	29. Lk 13, 18-21
2. Mt 18, 1-5.10	9. Lk 11, 1-4	16. Lk 11,42-46	23. Lk 12,39-48	30. Lk 13,22-30
3. Lk 10, 1-12	10. Lk 11,5-13	17. Lk 11,43-54	24. Lk 12,49-53	31. Lk 13, 31-35
4. Mt 11, 25-30	11. Lk 11,15-26	18. Lk 10, 1-9	25. Lk 12,54-59	
5. Mt 7, 7-11	12. Lk 11, 27-28	19. Lk 12, 8-12	26. Lk 13,1-9	
6. Mk 10,2-16	13. Mk 10,17-30	20. Mk 10,35-45	27. Mk 10,46-52	
7. Lk 10, 25-37	14. Lk 11, 29-32	21. Lk 12, 13-21	28. Lk 6, 12-19	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Urriko otoitza hilaren  
31ean izango da